


21. ^{æek} korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA



Txillardegi. 21. KORRIKAREN omendua



Asko izan dira KORRIKAK omendua: pertsona ezagunak, elkarte edo taldeak (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Euskaltzaindia, Durangoko Azoka, KORRIKAREN sortzaileak...), baita anonimoak ere: euskara-ikasleak, transmisioa ahalbidetu zuten emakumeak... Oraingoan, euskara batuaren 50. urteurrena ospatu berri, 21. edizioak Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi omenduko du, euskara batuaren aita eta euskaltzale nekazina.

Txillardegi (1929-2012), donostiar hizkuntzalaria, idazlea eta politikaria izan zen.

1929ko irailaren 27an jaio zen, Donostiako Antigua auzoan. Ama piano-irakaslea zen; aitak fabrika txiki bat zuen, litografiak egiten zituen. Gertutik ezagutu zuen Ondarretako espetxeko gorabeheren berri. Gurasoek euskaraz jakin arren, ez zioten irakatsi; hala, etxean entzun ez, eta bere kabuz hasi zen ikasten, 1948an. Frankismoa gazte-gaztetatik bizi izan zuelarik, Euskal Herriko egoera lartzaren kontzientzia hartuz joan zen, eta, handik aurrera, euskara eta Euskal Herria bere bizitzaren ardatzak izango ziren. 1954an Txillardegi ezizena erabiltzen hasi zen, bere jaiotetxearen aldameneko etxearen izena.

Omendua, Txillardegi

Euskara batuaren 50. urteurrena ospatu berrikan, 21. KORRIKAK Txillardegi omenduko du, "euskaldunon eta euskararen historian egindako gauzarik inportanteena berari zor diogulako, ziur aski: euskara batua, estandarra, sortu izana". Txillardegik literaturan, ikerkuntzan, irakaskuntzan, euskalgintzan... utzitako ondarea handia da. Bere sasoiari, klika egin zien euskarari eta herriari, kezka nagusi zuelako herriak hizkuntza beharrezkoa duela aldarrikatzea, Euskal Herriak euskara ezinbesteko ezaugarria duela, alegia. Txillardegik irmotasunez nabarmendu zuen goi-mailako erabile-rarako euskal hizkuntza bateratua sortzeko beharra. Arantzazuko Biltzarrak 1968an osatutako txostenaren aurrerari nagusiaren (euskara batuaren sorrera-agiritzat jotzen da) egilea izan zen Txillardegi.



Profil poliedrikoa dauka, gutxi bezala herri honetan, Txillardegik: politika, hizkuntza, soziolinguistika eta literatura. Azken hamarkadetako erreferentzia nagusietakoa. Alor horietan guztietan, lehen mailako eragilea izan zen, eta soziolinguistikarenean aitzindaria.

Martxelo Otamendi (2012/01/15)

Azpimarratu forma zuzena, eta esan: irakurri duzun testuaren arabera, ondokoak egia ala gezurra dira?

EGIA GEZURRA

- 1. Txillardegiren gurasoek euskara **jakinagatik ere/jakiteagatik/jakitearren**, bere kabuz ikasi behar izan zuten.
- 2. Frankismoa oso ondo ezagutu zuen, eta testuinguru horretan ekin zion euskara **ikastera/ikasteari/ikasteko**.
- 3. Txillardegik idatzi zuen askoren ustez euskara batuaren **sorrera-agiria dena/sorrera-agiritzat dena/sorrera-agiria bezalakoa dena**.
- 4. Txillardegiren kezka nagusia zen kaleko euskara bateratzea, denok **mintza dezagun/mintza gaitzkeen/mintza gaitzen**.
- 5. Martxelo Otamendiren ustez, Txillardegik alor askotan ekarpenak **egiteagatik ere/egin bazi-tuen ere/egitekotan**, soziolinguistikan nabarmendu zen.



KORRIKA kulturaleko eskaintzari buruzko artikulua idaztean, arazoak izan ditugu hitz batzuk gogoratzeko, eta ZER berba erabili dugu hutsune horiek betetzeko. Lotuko duzu ZER bakoitza dagokion hitzarekin? Aukerak, artikulua azpian dituzu.

DANTZHARIAK

Kontzertua da, batez ere. Lau musikarik (gitarra, akordeoia, kontrabaxua eta txistua) dantzarako musika jotzen dute, eta AIKO **zereko** (1) dantza-maisuek, oinekin kantuan, gorputz osoarekin musikaren bozgorailu-lana egiten dute. Gainera, **zer** (2) bakoitza ezberdina izanen da, inprobisazioa eta sorkuntza ere badirelako gure **zeraren** (3) parte.

ENKARGUZ

ENKARGUA. Kanta bat egiteko enkargua da, **zerak** (4) hala nahi badu, musika-konposizioa zein hitzak sortzeko eta estudio batean grabatzeko **zera** (5).

IKUSKIZUNA. Ikuskizunean, enkarguzko sormen-lanak jendaurrean egingo dira.

GURE OROITZAPENAK

FILMA (2018ko iraila). 12 nazioarteko eta euskal zinemagile bildu dira Joseba Sarrionandiaren 12 poema 12 film laburretan **zertzeko** (6).

IKUSKARIA (2019ko martxoa). Musika + hitzak + ikusuntzuzkoa biltzen dituen formatu handiko **zera** (7).

OHOLTZA (Beñat Krolem artistaren performancea)

“Oholtza” bat-bateko eskultura-performanceak bertso-laritzari eskaintzen dio tokia. Pieza-multzoen bitartez (egurra, oihala, LED argia...) egiten du, eta horiek hainbat **zeren** (8) bidez lotuta daude. Piezen artean **zerak** (9) sortuz, eta bere gorputza eta bertsolarienak erabiliz, Beñat Krolemek eskulturak sortuko ditu.

JULE (Hortzmuga Teatroa)

Familientzako kale-ikuskitzuna da. Eraikuntza bat eraistear dago, baina bertako **zer** (10) batek ateratzeari uko egingo dio; izan ere, ametsa, edo, hobe esanda, hainbat amets bete gabe ditu oraindik.

MUSUA (Pirritx, Porrotx eta Marimotots)


Familientzako ikuskizuna da. “Mundua mundu denetik, eguzkia biraka ari da, eta gu haren inguruan. Eta dei egiten dio **zerari** (11) esnatzeko. Munduak biraka segi dezan. Eguzkiak ez ezik, musuek ere biraka jartzen dutelako mundua. Eta musuek biraka jartzen gaituztelako gu. Eta zu?”




DANTZHARIAK (AIKO)



JOSEBA SARRIONANDIA



OHOLTZA BEÑAT KROLEM



AUKERAK:

ESKANTZA BIZTANLE TALDE	LUR SISTEMA TRADIZIO	ALDAKUNTZA BEZERO IKUSKIZUN	EMANALDI PANTAILARATU
-------------------------------	----------------------------	-----------------------------------	--------------------------


- | | |
|----------|-----------|
| 1) _____ | 7) _____ |
| 2) _____ | 8) _____ |
| 3) _____ | 9) _____ |
| 4) _____ | 10) _____ |
| 5) _____ | 11) _____ |
| 6) _____ | |

04 Denbora-pasak

ESALDIA OSATU

Hitz hauen sinonimoak aurreko orrietan irakurri dituzu. Idatzi dagozkien zenbakien azpian, eta Txillardegiren esaldi ezagun bat osatuko duzu.

1. Soinu
2. Mandatu
3. Sorkuntza
4. Ondasun
5. Zur
6. Abesti
7. Taula
8. Ospetsu
9. Garai
10. Lantegi
11. Ere
12. Jarrai




IBILBIDE GEZURTIA

Txillardegirekin hasi eta amaitzen den ibilbide honetako adierazpenen artean, gezurrezko batzuk sartu ditugu. Zein?

ERANTZUN GUZTIAK:

<http://www.korrika.eus/euskalte-gietarako-unitate-didaktikoak.html>

<p>2</p> <p>21. KORRIKAK gogorarazi nahi duen bezala, euskara batuak mende erdia beteko du aurten.</p> <p>EGIA... <input type="checkbox"/> GEZURRA... <input type="checkbox"/></p>	<p>3</p> <p>Euskara batuaren gurasoetako bat izan arren, Euskaltzaindian ez dute inoiz Txillardegi euskaltzain oso izendatu.</p> <p>EGIA... <input type="checkbox"/> GEZURRA... <input type="checkbox"/></p>	<p>4</p> <p>Hala ere, laster esan ahal izango dugu Txillardegi KORRIKAREN omendua izan dela, Euskaltzaindia ez bezala.</p> <p>EGIA... <input type="checkbox"/> GEZURRA... <input type="checkbox"/></p>
<p>9</p> <p>Euskara batuaren sorrera Arantzazuko Biltzarrean abiatu zen, 1968an.</p> <p>EGIA... <input type="checkbox"/> GEZURRA... <input type="checkbox"/></p>	<p>1</p> <p>Txillardegi euskara batuaren sorreraren bultzatzaile nagusietako bat izan zen.</p> 	<p>5</p> <p>Lehenengo KORRIKA Arantzazun hasi zen, 1980an.</p> <p>EGIA... <input type="checkbox"/> GEZURRA... <input type="checkbox"/></p>
<p>8</p> <p>Arantzazuko santutegian, Oteizaren 12 apostoluen eskultura ezaguna dago.</p> <p>EGIA... <input type="checkbox"/> GEZURRA... <input type="checkbox"/></p>	<p>7</p> <p>10. KORRIKAREN kantaren leloak honela zioen: "Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatz, hamar, Euskal Herria KORRIKA!"</p> <p>EGIA... <input type="checkbox"/> GEZURRA... <input type="checkbox"/></p>	<p>6</p> <p>10. KORRIKA Arantzazutik Bilbora joan zen, lehenengo edizioa nolabait gogoratzeko asmoz.</p> <p>EGIA... <input type="checkbox"/> GEZURRA... <input type="checkbox"/></p>